

## APD Nortek eta Euskaltelek bat egin dute Euskadiko eta Nafarroako ETEen zibersegurtasuna bultzatzeko

- *Euskaltelek eta APD Nortek berri egin dute bien arteko hitzarmena, eta Euskadiko eta Nafarroako ETEak digitalizazioaren eta zibersegurtasunaren arloan trebatzea izango dute helburu.*
- *Lankidetzaren horri esker, bi erakundeek zenbait hitzordu bateratu jarriko dituzte martxan aurten zibersegurtasunaren inguruan. Horien bidez, enpresek eraso baten ondorioei buruzko prestakuntza jasoko dute, eta horrelako krisi bat eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko gida erabilgarri bat azalduko zaie.*

**Bilbon, 2024ko otsailaren 12an** Euskadiko eta Nafarroako 670 enpresa bazkidek baino gehiagok beren zibersegurtasuna indartuko dute aurten, Euskaltelen eta ADPren (Asociación para el Progreso de la Dirección) arteko aliantzari esker, zeina berriki berretsi baitute bi erakundeek ordezkariek. Eduardo Junkera APD Norteko presidentea eta Jon Ander de las Fuentes Euskalteleko zuzendari nagusiak bien arteko lankidetzaren hitzarmena berretsi dute, eta, hala, sendotu egin dute konfiantzan oinarrituriko hamarkada bateko elkarlana.

Berri egin eta eguneratu egin dute ADPko kideentzat balioa sortuko duten ekimenak garatzeko hitzarmena, eta, aldi berean, Euskaltelek Euskadiko eta Nafarroako enpresa-ingurunearekin duen konpromisoa berretsi du. Hitzarmen horrek, zeinak ezagutza, esperientzia eta tekniken truke bateratua bultzatzen baitu, helburu hau du 2024rako: ETEen zibersegurtasuna areagotzea eta hori lortzeko behar diren tresnak eskaintzea enpresen giza taldeari.

Gaur goizean sinatu da hitzarmena, eta Jon Ander de las Fuentesek APDrekiko lankidetzari buruzko balantze oso positiboa egin du. De las Fuentesen hitzetan, "Euskaltelen iritziz, funtsezkoa da euskal ETEen segurtasuna handitzeko ahalegina egitea. Digitalizazioa urrats handiak egiten ari da etengabe, eta prest eta ondo babestuta egon behar dugu gure lanak segurtasunez eta konfiantzaz egiten jarraitu ahal izateko. Euskalteleko adituek egingo dute hori guztia, modu guztiz praktikoa, horretarako antolatutako jardunaldietan".

### Ezagutza partekatzeko ekitaldiak

Helburu hori betetzeko, APD Nortek eta Euskaltelek zenbait trebakuntza-saio eta ekitaldi antolatu dituzte APD Norteko bazkideentzat, enpresok aukera izan dezaten

zibersegurtasuna modu eraginkor eta efizientean kudeatzen eta martxan jartzen ikasteko. Euskadiko eta Nafarroako enpresen eraldaketa digitalean duen esperientzia aditua eskainiko du Euskaltelek, eta nabarmenduko du oso garrantzitsua dela zibersegurtasuna zaintzea gaur egungo testuinguruan, non funtsezkoa baita aldaketetara azkar egokitzea eta enpresak egungo mehatxuetatik babestea.

Hala, urtean zehar zenbait hitzordu izango dira, non enpresek aukera izango baitute mundu konektatuan dituzten erronken berri emateko. Halaber, zibersegurtasunari buruzko informazioa jasoko dute, zibererasoen ondorioak izango dituzte hizpide, eta, horretaz gainera, zibersegurtasuna modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko gida erabilgarri bat ere ezagutuko dute; gida hori hizkera ez-teknikoan azalduko zaie, modu praktikoan betiere, ETEen egoera eta gaitasunak aintzat harturik.

**Euskaltel - Komunikazioa**  
[komunikazioa@euskaltel.com](mailto:komunikazioa@euskaltel.com)